

• ASTERO GAIA •


Futbolaren industria

Futbol profesionala, porrot ekonomikotik gertu

Espainiako Estatuko Lehen eta Bigarren Mailako futbol profesionalak 4.000 milioi eurotik gorako zorrak ditu –zergetan 627 milioi euro zor dizkio Ogasunari– eta porrot egiteko zorian dago. Ez dago ez arautegirik ez kontrolik, eta futbol industriaren sektoreko adituek esaten dutenez, estatu, erkidego eta tokiko administrazio politikoak futbol klubekin elkar hartuta daudelako jarraitzen du egoera larri honek.

DANIEL UDALAITZ

DANI BLANCO





Oso garestiak eta ezagunak izan dira Real Madrilek egindako azken fitxaketak: Cristiano Ronaldo eta Ricardo Kaká. Nola da posible 562,78 milioi euroko zorra duen taldeak halako fitxaketak egin izana? Agintari instituzionalen onespena dago atzean.

CRISTIANO RONALDO, Kaká eta beste batzuen eskandaluzko fitxaketa ikaragarri garestiek agerian utzi dute Espainiako Estatuan futbolaren industriak daukan negozioa. Industria horrek milaka milioi euro mugitzen ditu, baina oinarri faltsuen babesarekin: diru publikoa, babes politiko publiko susmagarri samarrekin egiten diren lursailen birkalifikazioak, eta klubek administrazio publikoekin zor handiak pilatu arren administrazioek klubak kudeaketa kontrolatzeko ahalegin eza. Hala, Espainiako futbol profesionala kinka larrian dago gaur egun.

4.000 milioi eurotik gorako zorra

Futbolaren gai korapilatsu hau aztertu dutenen artean Josep María Gay de Liébana katedradun kataluniarra da aipagarriena. Finantza Ekonomia eta Kontabilitateko irakasle titularra da Bartzelonako Unibertsitatean eta UEFA-n aholkulari lanak ere egiten ditu. Futbol

Futbolak milioiak mugitzen ditu, baina oinarri faltsuen babesarekin: diru publikoa, lursailen birkalifikazioak, eta administrazioaren kontrol eza

profesionalaren egoera makalari buruzko txosten mardula idatzi du azken hilabeteotan. Horretarako, Merkataritza Erregistroa arakatzeko aritu da. Txosten horretan ikus daitekeenez, Espainiako Lehenengo Mailako ligako klubek bakarrik –eta horien artean ditugu Bilboko Athletic eta Osasuna euskal taldeak– 3.400 milioi eurotik gorako zorra pilatu dute, garai bateko bilioi erdi pezetatik dezente gorako zorra, alegia. Zor handienak dituzten taldeak Real Madril (562 milioi euro zor), Atletico Madril (510 milioi), Valentzia (502) eta Bartzelona (437) dira.

Bigarren Mailako taldeen zorrak gehituz gero –hortxe ditugu Real eta Real Union euskal taldeak– zenbateko horiek erraz iristen dira 4.000 milioi eurotik gora. Zenbateko ikaragarri horretatik 607 milioi euro baino gehiago Lehenengo eta Bigarren Mailako klubek Zerga Agentzia edo Ogasunarekin dauzkaten zorrek osatzen dute. Ogasuneko azken datu hori ofizialki ezagutu ahal izan da, Espainiako Gobernuak berak eman duelako, IU alderdiak Parlamentuan egindako galdera bati erantzunez. Klub guztien artean daukaten zorraren zenbatekoa da Espainiako Gobernuak jakitera eman duen bakarra. Klub bakoitzaren zorra zein den ezin

LEHENENGO MAILAKO ZORRAK (2007/2008)

| (milioi eurotan) | ZORRA DENERA | SARRERAK | GASTUAK |
|------------------------------|-----------------|----------|----------|
| Real Madril | 562,78 | 365,85 | 351,62 |
| Athletico Madril | 510,86 | 78,84 | 125,35 |
| Valentzia | 502,34 | 104,07 | 148,29 |
| Bartzelona | 437,79 | 308,79 | 292,63 |
| A Coruñaako Deportivo | 292,34 | 35,19 | 46,82 |
| Villarreal | 239,92 | 68,89 | 104,67 |
| Espanyol | 151,56 | 42,53 | 44,58 |
| Santanderko Racing | 136,92 | 23,98 | 46,45 |
| Zaragoza | 111,50 | 46,71 | 66,36 |
| Sevilla | 109,94 | 84,60 | 96,29 |
| Mallorca | 76,00 | 29,63 | 43,35 |
| Betis | 75,90 | 25,04 | 40,45 |
| Osasuna | 60,46 | 28,88 | 32,59 |
| Bilboko Athletic | 52,76 | 54,62 | 55,75 |
| Levante | 36,52 | 5,50 | 26,25 |
| Murtzia | 36,49 | 27,99 | 35,39 |
| Getafe | 31,58 | 35,04 | 43,71 |
| R. Huelva | 12,52 | 4,84 | 9,19 |
| Almeria | 5,61 | 6,96 | 7,36 |
| Valladolid | * | * | * |
| GUZTIRA | 3.443,80 | 1.377,95 | 1.617,11 |

*Daturik ez

Iturria: Josep Maria Gay de Liébana. Bartzelonako Unibertsitatea



omen du argitara eman, horiek isilpean gorde beharreko datuak ei dira eta. Horretaz guztiaz gain, klubak zorretan daude Gizarte Segurantzarekin ere. Hortaz, ez da harritzekoa Lehenengo eta Bigarren mailako klub asko porrot teknikoan egotea.

Esate baterako, jakina da Lehenengo Mailako Malaga eta Xixongo Sporting taldeek Lehiaketa Legeari atxikitzea edo ordainketak etetea erabaki dutela, Gizarte Segurantzarekin eta Zerga Agentziarekin (Ogasuna) daukaten zorrari aurre egin ahal izateko. Egoera berdintsuan daude Bigarren Mailako beste zenbait talde ere, besteak beste Alaves eta Real euskal taldeak, Celta galiziarra, eta Murtzia, Las Palmas eta Levante espainiarrrak. Eta txosten hau argitaratzen denerako, ziur asko Lehenengo eta Bigarren Mailako beste talde asko egongo dira azaldu berri dugun egoeran.

Agintarien onespena

Egoera hau ezinezkoa litzateke estatu, erki-dego eta tokiko agintari politikoak futbol klubekin elkar hartuta egongo ez balira. “Espainiako futbolarik instituzioen oniritzia jaso du futbol agintarien kudeaketa ekonomiko ezin okerragoa salbatzeko”. Ogasuneko Teknikarien Gestha Sindikatuko idazkari nagusia den Jose Maria Molinedok esaldi horrekin laburbildu du futbol profesionaleko Lehenengo Mailako eta Bigarren A eta B mailako klubak, agintarien oniritziarekin, nola iritsi diren Ogasunarekin 627 milioi euroko zorra edukitzea eta altxor publikoaren zordun handienetakoak izatera.

Ez da futbol profesionalak zerga betebeharrak betetzen ez dituen lehenengo aldia. Aurreneko aldia zorra Espainiako Estatuak irentsi zuen eta, hurrengo aldia, kirol elkar-te anonimoak sortu ziren, kudeaketa profe-

Euskal taldeek 171 milioi euro zor dituzte



Osasuna da euskal taldeen artean zorrik handiena duena. Irudian, zaletuak Championsean.

Bilboko Athleticetik, Osasunak, Realak eta Alavesek, 2007-2008 denboraldian Profesionalek Futbol Ligako (PFL) txapelketetan parte hartu zuten Lehenengo eta Bigarren Mailako lau euskal taldeek, guztira 171 milioi eurotik gorako zorra egin zuten. Eibarrek besterik ez zuen lortu kontuak garbi edukitzea. Oraintxe, bistan denez, zor horiek askoz handiagoak izango dira. Gaur egun Bigarren Mailan dauden Gipuzkoa eta Arabako taldeak ordainketa-etendurarekin daude edo Lehiaketa Legean sartuta, Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketei aurre egin ahal izateko.

Hego Euskal Herriko hainbat taldetako zorrak ondorengo hauek dira: Osasunak 60,46 milioi euro zor ditu; Bilboko Athletic futbol taldeak 52,76 milioi; Realak 30,90 milioi eta Alavesek 26,85 milioi.

sionalizatzeko eta klubak ekonomikoki bideragarriak bihurtzeko helburuarekin. Molinedoren arabera, lege hura onartu zenetik ia 20 urte beranduago, futbol profesionaleko klub guztiak dira sozietate anonimoak, Real Madril, Bartzelona, Bilboko Athletic eta Osasuna izan ezik. Alabaina, daukaten ustezko gizarte erantzukizuna behin eta berriz koartada gisa erabiltzen dute kudeaketa txarren ondorioak konpontzera instituzioen laguntzaren bila joateko.

Analistek diotenez, espainiar futbolaren tradiziozko eredua, batez ere oraingo krisialdiarekin, bukatu da. Gayren arabera, “transferezien prezioen burbuila airea galtzen ari da

Klubek, Ogasunari ez ordainduagatik ez Gobernuak eta ez PFL-k inoiz erantzukizunik eskatu ez dietenez, kutxa, udal eta autonomia erkidegoei maileguak eskatzen jarraitzen dute

eta higiezinaren merkatua behera doa ziztu bizian. Espainiar futboleko *pelotazoen* eta diru zahutzeen garai loriatsua bukatu da”. Gauzak horrela, espainiar futbolaren etorkizuna zalantzaz josia dago eta aurreikusten zaila da. Gayren iritziz, klubak dagoeneko badauzkaten zorrei aurre egiteko gai izango direla ere ezin da bermatu, zorra askoz handiagoa baita gaur egun klubak diru iturri ia bakarria diren materialaren salmentarekin, telebistarekin, txartelen salmentarekin eta kiniekin irabazi daitekeen diru kopurua baino. Molinedo ere oso ezkorra da. Klubek Ogasunari ordaintzea horrela zaila izango dela ziurtatzen du. Bere ustez, irtenbide bideragarri bakarria Kirol Kontseilu Gorenak (KKG) kontuak ikuskatzea eta klubak porrotera eraman dituzten kudeatzaileei –bada garaia eta– erantzukizunak eskatzea litzateke.

Kontrolak kale egiten dute

Arautegirik ez izateak eta kontrolak kale egiteak eraman dute futbol profesionalea hondamendira. Horretan bat datoz Alcalán Merkataritza Zuzenbideko katedra duen Otero Lastres eta Gay de Liébana adituak. Otero Lastresek dio kudeaketa horrek indarrean dauden legeak ez betetzea eragin duela, arauhauste larria beraz. Erreakziorik ez da izan, legezko bi kontrolak –Profesionalek Futbol Ligako (PFL) eta Kirol Kontseilu Gorenak (KKG)– kale egin dutelako. Gay de Liébanak, gainera, bi erakunde horiek salatu ditu. KKG erakundeaz zera esan du: erakunde horrek “kontuen kopiak eskatzen dizkie klubei baina gero inork ez ditu kontrolatzen”. PFL erakundeaz daukan iritzia, berriz, hauxe da: “Finantzatan diziplina ezarri beharko luke; Lehenengo eta Bigarren Mailako klubak ikuskatu eta bideratu beharko lituzke. Baina egia esan behar bada, bere zereginetan erabateko utzikeria erakusten du orain PFL-k”.

Futbol klubak hiko kudeatzaileen jardun protokoloa hauxe izan da 2008. urtera arte: merkatura irten eta milioi askoko kontratuak eskaintzen dizkiete ondo kotizatuta dauden jokalariei. Gero, ziurrak ez diren aukeretan oinarrituz, aurrekontuak diseina-

Zerga sistema pribilegiatua futbolari atzerritarrentzat

ESPAINIAKO ESTATUAN jokatzeko duten futbolari atzerritarrek zerga sistema oso pribilegiatua baliatzen dute dauzkaten milioika eta milioikako diru-sarrerentzat. Horrek berekin dakarrena da espainiar ligarako "izarrak" edo "galaktikoak" kontratatzen dituzten klubek ere etekina ateratzea zerga pribilegio horiei, nahiz eta gero Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorretan urteak eraman. Espainiako Estatua da, zergeti dagokionez, Europa osoko onuragarriena futbolari atzerritarrentzat.

Ondorio hori atera daiteke Ernst & Young enpresak joan den ekainean egindako ikerketatik. Herbehereak, Alemania, Erresuma Batua, Italia, Espainia eta Frantziara erbesteratutako zerga kostuak alderatzen ditu ikerketa horrek. Ondorio garrantzitsua da Espainiako Estatua dela futbolari atzerritarrentzat zerga kostu txikiak dituen.

Espainiako Estatuan 2004az geroztik erregimen berezia dago lanera Espainiara joan eta egoitza fiskala bertan hartzen dutenentzat, baldintza jakin batzuk betez gero. Besteak beste, etortzen diren urtearen aurreko hamar urteetan ezin dute egoitza fiskala Espainian eduki, eta Estatuan bertan lan egin behar dute. Arautegi hori "Beckham Legea" bezala ezagutzen da, futbolari ingelesa Real Madrilerira iristearekin batera aplikatzen hasi zela-

ko. Oro har, erregimen berezi honetan, Espainiako Estatuan sorrarazitako errentengatik zergetan %24ko tasa finkoa ordaindu dezakete ez egoiliar gisa. Ernst & Young-en arabera, Espainian bakarrik lortutako errentengatik %24 ordainduz izugarriko diru pila aurrezten dute zergetan, zergak PFEZren tasa marjinalen arabera ordaintzen dituen edozein "zergadun espainiarrek" ordaindu beharreko %43 arterainoko zenbatekoekin alderatuz gero –kontuan hartu behar da, gainera, espainiarrek mundu osoan eskuratutako errentengatik ordaindu behar dutela aipatutako zenbatekoa–.

Aipatu txostenaren arabera, urtean 500.000 euroko diru-sarrera garbiak dituen jokalariek baten-gatik, Espainian klubak 180.059 euro inguru ordaindu behar izaten dituzte zergetan. Bi milioi euroko soldatarengatik, aldiz, zergak 680.059 euroraino igotzen dira. Beste herrialdeetan, zergak handiagoak dira. Esate baterako, Herbehereak "zerga espainiarretatik" gertu dago; Herbeheretan 275.000 euroko zergak ordaindu behar izaten dira 500.000 euroko soldata izanez gero, eta 1.130.000 eurotik zertxobait goragokoak bi milioiko diru sarrerak izanez gero. Beste muturrean Frantziako Estatua dago, hurrenez hurren 822.000 eta 3.430.000 euro inguruko kostuarekin.

tzen dituzte. Ziurrak ez diren aukera horiek Txapeldunen Ligarako sailkatzea edo Lehenengo Mailan jarraitzea izaten dira, likidezia bermatzen baitute; Lehenengoak, telebistako diru-sarrerak dakartzalako eta, Championsak, 160 milioi eurora arteko sariak ziurtatzen dituelako. Sari horiek irabaztea aurreikusten dutenez, kreditua eskatzen dute soldatak finantzatzeko, klubek izaten dituzten ohiko diru-sarrerekin ez baitira iristen. Bidean, Ogasunari ordaintzeari

uzten diote. Ez Gobernuak eta ez PFL-k inoiz erantzukizunik eskatu ez dietenez, kutxa, udal eta autonomia erkidegoei maileguak eskatzen jarraitzen dute, birkalifikazioekin edo toki administrazioen kargurako azpiegiturekin kostuak ordaintzeko. Azkenean, horiek guztiak soldaten gastuak ordaintzeko nahikoak izaten ez diren eguna iristen da. Eta presioa jasan ezin dutenean, ohiko kudeatzaileek Lehiaketa Legea jotzen dute porrota saihesteko. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zkuffaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com